

ANE PIKAZA

HÉCTOR ALTERIO

N O R A

LARA IZAGIRREREN FILMA



**GARIZA FILMS, TANDEM FILMS ETA LA FIDÈLE
PRODUCTIONEN EKOIZPENA**

ANE PIKAZA, HÉCTOR ALTERIO, NAIARA CARMONA,
RAMON BAREA, KLARA BADIOLA, LOLI ASTOREKA,
IÑIGO ARANBARRI, ITZIAR ITUÑO, JOSEBA USABIAGA,
KEPA ERRASTI, PEIO BERTERRETCHE, AIA KRUSE, JUNE
ISASI, PAUL CORREA Y CATHERINE DOMAIN



Donostia Zinemaldia
Festival de San Sebastián
ZINEMIRA

ILE-APAINKETA ARDURADUNA PAULA BARRUTIA
MAKILLAJE ARDURADUNA RAKEL BLAZQUEZ
SCRIPTA GORKA CORNEJO
ZUZENDARI LAGUNTZAILEA LORENA TUDELA
EKOIZPEN ZUZENDARIA ITXASO ESPINAL
MUSIKAGILEAK PAULA OLAZ Y PASCAL GAIGNE
JATORRIZKO ABESTIA IZARO
SOINU DISEINATZAILEA JEAN MINONDO
SOINU SORTZAILEA ALEJANDRO CASTILLO
JANTZITEGI DISEINATZAILEA IRATXE SANZ
MUNTZATZAILEA IBAI ELORTZA
ARTE DISEINATZAILEA IZASKUN URKIJO
ARGAZKI ZUZENDARIA GAIZKA BOURGEAUD
EKOIZLEAK MARGA GARIZURIETA, LARA IZAGIRRE, CRISTINA
ZUMÁRRAGA, PABLO BOSSI Y JOKIN ETCHEVERRIA
EKOIZLE ERAGILEA GARAZI ELORZA
GIDOLARI ETA ZUZENDARIA LARA IZAGIRRE

AURKIBIDEA



■ Logline eta sinopsia 03

■ Fitxa artistikoa 05

■ Fitxa teknikoa 07

■ Zuzendariaren oharra 09

■ Zuzendariaren biofilmografia 12

■ Aktoreak 14

■ Ekoiztetxeak 17

Gariza Films 18

Tandem Films 22

La Fidèle Productions 24

■ Harremanetarako 26

LOGLINE ETA SINOPSISIA

LOGLINE ETA SINOPSIA

LOGLINE

Lan-elkarrizketa penagarria. Bidaia zapuztua Argentinara. Aitite Nicolasen heriotza. Citroën urdin zaharraren giltzak.

Eta uda.

Horrela hasten da Noraren bidaia alderraia.

SINOPSIA

Norak 30 urte ditu, Nicolás aitite argentinarrarekin bizi da eta Meri lagunaren seme-alabak zaindu ohi ditu. Herriko aldizkariaren horoskopoa idazten du, baina bere ametsa bidaia-idazle izatea da.

Aititeren heriotzak Dyane 6 zahar bat utziko dio herentzian. Norak gaizki gidatzen badu ere, noraezoko road trip-a egingo du Euskal Herriko kostaldean zehar, aititeren errautsak amamaren errautsen ondora eramateko.

Bideak laster erakutsiko dio ez dela bidaiari izateko jaio, eta bere ametsak ez zuela zerikusirik berarekin, baizik eta libre izateko, hazteko, zauriak ixteko eta lehenengo aldiz bere buruari zoriontsu izateko aukera emateko aitzakia besterik ez zela.



FITXA ARTISTIKOA

NORA




Protagonista
ANE PIKAZA

NICOLÁS



Aitite
HÉCTOR ALTERIO

JAVI



Aita
RAMON BAREA

LOLI




Ama
KLARA BADIOLA

MERI



Lagun onena
NAIARA CARMONA

ELENE




Meriren alaba
JUNE ISASI

MARKEL



Meriren semea
PAUL CORREA

JON



EGBko ikaskidea
KEPA ERRASTI

JOSEBA



Paddle Surflaria
IÑIGO ARANBARRI

ANDER



Arrantzalea
JOSEBA USABIAGA

MARI FELI



Baserritarra
LOLI ASTOREKA

AMY



Bidaia kazetaria
AIA KRUSE

XIMUN



Mutil-lagun ohia
PEIO BERTERRETCHÉ

HEGOA



Ximuren alaba
HEGOA NEGUELOUA

GASOLINERA



Gasolindegiko langilea
ITZIAR ITUÑO

CATHERINE



Dendaren jabea
CATHERINE DOMAIN

FITXA TEKNIKOA

FITXA TEKNIKOA

IZENBURUA

NORA

HIZKUNTZA

80% EUSKARA
20% GAZTELANIA, FRANTSESA ETA INGELERA

GENEROA

DRAMEDIA, ANTI-ROAD MOVIE

IRAUPENA

100 MINUTU

EKOIZTETXEAK

GARIZA FILMS
TANDEM FILMS
LA FIDÈLE PRODUCTION

GIDOILARIA ETA ZUZENDARIA

LARA IZAGIRRE GARIZURIETA

EKOIZLE ERAGILEA

GARAZI ELORZA

EKOIZLEAK

LARA IZAGIRRE, CRISTINA ZUMARRAGA
PABLO BOSSI ETA JOKIN ETCHEVERRIA

EKOIZPEN ZUZENDARIA

ITXASO ESPINAL

ARGAZKI ZUZENDARIA

GAIZKA BOURGEAUD

ARTE ZUZENDARIA

IZASKUN URKIJO

FIGURINGILEA

IRATXE SANZ

MAKILLAJE ETA ILE-APAINKETA BURUA

RAKEL BLÁZQUEZ

SOINU ZUZENDARIA:

JEAN MINONDO

MUSIKA

PAULA OLAZ ETA PASCAL GAIGNE

JATORRIZKO ABESTIA

IZARO ANDRÉS

SOINUA MUNTATZEKO ZUZENDARITZA ETA NAHASKETEN ARDURADUNA

ALEJANDRO CASTILLO

EDITOREA

IBAI ELORTZA

ETALONAJEA

PAULA RUIZ

ZUZENDARIAREN OHARRA

ZUZENDARIAREN OHARRA



Aitite **Pedro**rekin etxea eta bizitza partekatzeke zortea izan nuen, hamazazpi urte bete nituen arte. Gurasoak bidaian joaten ziren bakoitzean, neba eta biok bere Citroën visa marroian sartu eta mendira eramaten gintuen perretxiko bila.

Nire amama **Marga**, bere emaztea, ni jaio baino zenbait urte lehenago hil zen. Berari buruz dakidana da eskailerak igotzean belaunek kraska egiten ziotela, eta bere eskuak orain amak dituenak bezalakoak zirela, eta seguru asko etorkizunean izango ditudan eskuak bezalakoak.

Aitaren aldetik, aitite **Ramon** duela bi urte hil zen, NORA idazten ari nintzela. Herriko begi urdin politenak zituen gizona, ederra eta dotorea, isila eta sinplea, gozoa eta familia maite zituena.

Amama **Bizenta**, aldiz, sorgina da, ni bezala, eta oso lagun ontzat dut. 88 urterekin zereginetan erne eta tinko jarraitzen du. Siestarik onenak

berarekin egiten ditut, eta, zalantzarik gabe, munduko sukaldaririk onena da.

Nire aitite-amamak dira NORA egiteko inspirazioa. Lau pertsona oso desberdin dira eta, nahiz eta gorriak ikusi dituzten, «nekeetan, irria ezpainetan» bizitza-filosofia gisa izan dute.

Horregatik, NORA **film baikorra eta atsegina** da. Film hau maite dugun pertsona baten heriotzak gure bizitzaren aurrean nola jartzen gaituen inguruan mintzatzen da, eta gertakari horrek erabaki bat hartzera bultzatzen gaituelaren inguruan: aurrera egin edo ihes egin.

Udako film arin henek, tristea eta zorionekoa aldi berean, aitite Nicolás galdu ondoren Nora izeneko hogeita hamar urteko emakume batek furgonetaz egindako bidaia kontatzen du. Publiko zabalera iritsi nahi duen euskarazko film honen protagonista emakume bat da eta emakumeak buru dituen talde sortzaile batek egin du.



**ZUZENDARIAREN
BIOFILMOGRAFIA**

ZUZENDARIAREN BIOFILMOGRAFIA



LARA IZAGIRRE

Gidolari eta zuzendaria

2007an Ikus Entzunezko komunikazioan lizentzitu zen UPV/ EHU. Ostean, New York-eko NYFA zine eskolan zinema zuzendaritzan espezializatu zen 1-Year Filmmaking Program ikasi ondoren. Bere ikasketak bukatu ostean Forense Films ekoiztetxean lanean aritu zen urtebetez.

Euskal Herrira bueltatu zenean Gariza Films sortu zuen eta 2010 eta 2014 bitartean, bost laburmetrai idatzi eta zuzendu zituen: **'Bicycle Poe'**, **'Kea'**, **'Next Stop: Greenland'**, **'Sormenaren Bide ezkutuak'** eta **'Larroxa'**.

2015ean estreinatu zuen bere lehen luzemetraia, **'Un otoño sin Berlin'**, Donostiako Zinemaldian

hain zuzen ere. Hurrengo urtean, 2016an, Irene Escolar aktore protagonistak, **Goya Saria** jaso zuen, aktore berri onena izendatua izanik.

2016tik, ekoizle lanetan ere dihardu Gariza Films-en eta jada bost luzemetrai koproduzitu ditu: **'Errementari'** (2017), **'Vitoria, 3 de marzo'** (2018), **'Muga deitzen da pausoa'** (2018) **'Fabricando mujeres'** (2018) eta **'Una ventana al mar'** (2020). Baita bi laburmetrai ere, **'Bayandalai: lord of the Taiga'** (2018) eta **'Ya no duermo'** (2020).

'Nora' bere bigarren film luzea Donostiako Zinemaldian estreinatuko da 2020ko irailean.



AKTOREAK

ANE PIKAZA



Ane Pikaza (Bilbo, 1984). Arte Ederretan eta Antzerkian lizentziatu zenetik, ilustrazioaren eta arte eszenikoen munduak konbinatu ditu.

Antzerkian egindako lanen artean, honako hauek nabarmentzen dira: Decir lluvia y que llueva (Kabia teatroa), Palabras (Hika teatroa), La noche Árabe (Hika, Kabia eta Pabellon 6-en elkarlana), Duermevela (Kabia teatroaren ekoizpena Bilboko Arriaga Antzokiarentzat), Lyceum Club (Bilbao 700 Fundazioaren ekoizpena, Maria Goricelayak idatzia eta zuzendua), Strip-tease (Jokin Oregiren lana Loraldia Festibalarako), Mami Lebrun, Donostia Antzerki Saria 2017 (Xake produkzioak), Tres Mujeres (Bilboko Arriaga Antzokiaren ekoizpena, Mireia Gabilondok zuzendua), Harri Orri Ar / El Patio de mi casa ikuskizunaren zuzendaritza-laguntzailea eta Arriaga Antzokiaren Madre Coraje / Ama Kuraia azken produkzioan parte-hartzea.

Antzerkian izan duen lan-esperientzia ikus-entzunezkoarekin lotuta egon da beti, eta **Goenkale** telesailean, **Vitoria, martxoak 3** edo **NORA** bezalako proiektuetan lan egin du. Azken urtean, **Ane** filmean eta **Alardea** telesailean parte hartu du.

Aktore lana egiteaz gain, ilustrazioaren eta kultura-kudeaketaren munduan ere lan egiten du. Diziplina anitzeko profila du, eta, horri esker, hainbat formatu, aplikazio eta harreman ikertu ahal izan ditu ilustrazioaren eta antzerkiaren edo bideo-jokoen bezalako sektore paraleloen artean. Bere lanen artean nabarmentzekoak dira AZeko Fatxada proiektuan parte hartu izana, Alicia tras Alicia proiektioak (Kabia Teatroaren azken produkzioa) edo Zinegoak zinemaldiaren kartela. Horiei, besteak beste, antzerki- eta jaialdi-kartelen, erakusketen eta aldizkari eta argitaletxeekin egindako kolaborazioen inguruan egindako bide luzea gehitu behar zaie.

HÉCTOR ALTERIO

Héctor Alterio Buenos Airesen (Argentina) jaio zen 1929an. Arte dramatikoko ikasketak amaitu ondoren, Nuevo Teatro konpainia sortu zuen 60ko hamarkadan, Argentinako eszenari itxura berria emanaz.


Alteriok arrakasta izan zuen Argentinan **Todo el sol es amargo** (1966) genero dramatikoko filmaren protagonista izan zenean. Hurrengo urteetan Argentinako film onenatarikoetan parte hartu zuen, besteak beste: **La vida contemplativa** (1967), **El otro oficio** (1967), **Don Segundo Sombra** (1969).

1975ean, Alterio Espainiara joan zen, beti bere jaioterrira itzultzeko asmoarekin, baina Triple A izeneko talde paramilitar batek heriotza-mehatxua egin zionez, itzuleraren inguruan hausnartu eta Espainian saiatzea erabaki zuen.

1975az geroztik, Alteriok Espainiako produkzio askotan ere parte hartu du, eta eszena gogoangarriak utzi ditu zenbait filmetan: Jaime Chávarriren **A un dios desconocido** (1977) lanean, zeinarekin Donostiako Zinemaldian aktore onenaren saria jaso zuen, Pilar Miróren **El crimen de Cuenca** (1979) filmean edo Jaime de Armósiñánen **El nido** (1980) filmean. Azken film hau Oscar sarietarako izendatu zuten eta Alteriok New Yorkeko Kronista Elkarteak emandako aktore onenaren saria jaso zuen.

Bere azken lanak **NORA** (Lara Izagirre), **Las Consecuencias** (Claudia Pinto) eta **Kamikace** (Alex Pina) dira.

Goya Sarien hemezortzigarren edizioan, Alteriok **Ohorezko Goya** saria jaso zuen bere ibilbide luze eta apartekoagatik, eta 2010ean Zilarrezko Cándor saria.



RAMON BAREA

70eko hamarkadan hasi zen lanean, Euskal Herriko Antzerki Independente profesionalen parte hartuz: Cómicos de la Legua 69-80 eta Karraka 81-95. Horien sortzaile eta aktore izan zen, eta, ondoren, antzerkia idatzi zuen eta zuzendaritza lanetan aritu zen. Garai horretan egin zituen ehun inguru ikuskizunen artean, hauek nabarmendu behar dira: Bilbao Bilbao musikala; Camilo José Celaren testuen inguruko Oficio de Tinieblas 5; Okupado; Euskadifrenia; Ubú Emperatriz; La Palanca Gran Cabaret; Hoy última función; El hombre que confundió a su mujer con un sombrero; Orquesta de señoritas.

Zinema-aktore gisa, ehun film baino gehiagotan parte hartu du, besteak beste, honako hauen opera primetan: Imanol Uribe, Enrique Urbizu, Julio Medem, Juanma Bajo Ulloa, Pablo Berger, Ana Díez eta Alex de la Iglesia.

Bere azken zinema-lanak hauek izan dira: **Voces** (Angel Gómez), **La boda de rosa** (Iciar Bollain), **Abuelos** (Santiago Requejo), **La línea invisible** (Martiano Barroso), **La pequeña Suiza** (Kepa Sojo) eta **NORA** (Lara Izagirre).



EKOIZTETXEAK

GARIZA FILMS



Gariza Films 2010ean sortutako ekoiztetxe independentea da, Lara Izagirre Garizurieta zinemagileak sortua.

Bere jarduera nagusiak sormenezko dokumentalen, fikziozko film luzeen edo film laburren ikus-entzunezko ekoizpena eta koekoizpena dira.

www.garizafilms.com

2015



UN OTOÑO SIN BERLÍN

· 100 min ·

Filmin-en eskuragarri.

Zuzendaria: Lara Izagirre.

2017



ERREMENTARI: EL HERRERO Y EL DIABLO

· 100 min ·

Netflix-en eskuragarri.

Zuzendaria: Paul Urkijo.

2018




VITORIA, 3 DE MARZO

· 90 min ·

Eitb Nahieran-en eskuragarri.

Zuzendaria: Víctor Cabaco.

2018




MUGA DEITZEN DA PAUSOA

· 79 min ·

Filmin-en eskuragarri .
Zuzendaria: Mainer Oleaga.

2018



BAYANDALAI: LORD OF THE TAIGA

· 11 min ·

Vimeo-n eskuragarri .
Zuzendariak: Pablo Vidal eta
Aner Etxebarria.

2018



FABRICANDO MUJERES

· 75 min ·

Estreinaldia Zinebi jaialdian.
Zuzendariak: Ana Serna eta
Paula Iglesias.

2019

una ventana al mar




UNA VENTANA AL MAR

· 105 min ·

Zinemaldian estreinatua.

Zuzendaria: Miguel Ángel Jiménez.

2020



AKELARRE

· 130 min ·

Estreinaldia 2020ko

Donostiako Zinemaldian.

Zuzendaria: Pablo Agüero.

2020



YA NO DUERMO

· 21 min ·

Estreinaldia 2020ko


Donostiako Zinemaldian.

Zuzendaria: Marina Palacio.

GARIZA FILMS

WORK IN PROGRESS

2021



SONS OF EDEN

Serie dokumentala (6 x 52 min).

Zuzendariak: Pablo Vidal eta
Aner Etxebarria.

2022



20.000 ESPECIES DE ABEJAS

Fikziozko film luzea.

Zuzendaria: Estibaliz Urresola.

Hautatua izan da:

- La Incubadora, The Screen.
- Tabakalerako Noka mentoring.
- DAMA laguntza.

TANDEM FILMS



Tandem Films ekoiztetxeak Madrilen du egoitza, eta sektorean hainbat hamarkadetako esperientzia duten Pablo Bossik eta Cristina Zumárragak sortu zuten. Ekoiztetxea Latinoamerika eta Europaren arteko zubia da, eta nazioarteko proiektioa duten proiektuak garatu eta ekoizten ditu.

www.tandemfilms.es

2018



NO DORMIRÁS

· 107 min ·

TVE a la carta eta Netflix-en

eskuragarri.

Zuzendaria: Gustavo Hernández.

2019



LOS LUNNIS Y EL LIBRO MÁGICO

· 83 min ·

TVE a la carta y Movistar+-en

eskuragarri.

Zuzendaria: Juan Pablo Buscarini.

2019



LO NUNCA VISTO

· 93 min ·

Netflix-en eskuragarri.

Zuzendaria: Marina Seresesky.

TANDEM FILMS

2019



LA GALLINA TURULECA

· 80 min ·

TVE a la carta-en eskuragarri.

Zuzendariak: Eduardo Gondell

eta Víctor Monigote.

2020



LA BODA DE ROSA

· 97 min ·

Estreinaldia 2020ko

Malagako Zinemaldian

Zuzendaria: Iciar Bollaín.

LA FIDÈLE PRODUCTION

LA FIDÈLE
PRODUCTION

Frantziako hegoaldean egoitza duen ekoiztetxe gazte eta independentea, Espainiako iparraldearekin egindako koekoizpenetan espezializaturia. Ekoizle exekutiboa Jokin Etcheverria da.

Azken urteotan nazioarteko produkzio batzuk egin ditu, euskal kulturaren lau film luze abangoardista direnak: Dantza; Agur Etxebeste; Akelarre; eta NORA.

Next Station laborategia ere kudeatzen du. Hori laborategi parte-hartzaile eta sortzailea da, euskarazko fikziozko web serieen garapena eta talentu gazte berriak bilatzea helburu duena.

www.lafideleproduction.com

2018

DANTZA



DANTZA

· 90 min ·

Zuzendaria: Telmo Esnal.

2018



AGUR ETXEBESTE!

· 90 min ·

Zuzendariak: Telmo Esnal eta
Asier Altuna.

2020



AKELARRE

· 130 min ·

Fikziozko film luzea.
Zuzendaria: Pablo Agüero.

EKOIZTETXEA



www.garizafilms.com
info@garizafilms.com
+34 946 18 12 77



www.tandemfilms.es
info@tandemfilms.es
+34 910 52 60 07



www.lafideleproduction.com
jokin@lafideleproduction.com

PRENTSA

EVA HERRERO
eva@madavenue.es
+34 649 706 807



BANATZAILEAK

info@acontracorrientefilms.com
+34 93 539 85 36



NAZIOARTEKO SALMENTA-AGENTEA

filmaxint@filmax.com
+34 933 368 555



ANE PIKAZA

HÉCTOR ALTERIO

N O R A

LARA IZAGIRREREN FILMA



**GARIZA FILMS, TANDEM FILMS ETA LA FIDÈLE
PRODUCTIONEN EKOIZPENA**

ANE PIKAZA, HÉCTOR ALTERIO, NAIARA CARMONA,
RAMON BAREA, KLARA BADIOLA, LOLI ASTOREKA,
IÑIGO ARANBARRI, ITZIAR ITUÑO, JOSEBA USABIAGA,
KEPA ERRASTI, PEIO BERTERRETCHE, AIA KRUSE, JUNE
ISASI, PAUL CORREA Y CATHERINE DOMAIN



Donostia Zinemaldia
Festival de San Sebastián
ZINEMIRA

ILE-APAINKETA ARDURADUNA PAULA BARRUTIA
MAKILLAJE ARDURADUNA RAKEL BLAZQUEZ
SCRIPTA GORKA CORNEJO
ZUZENDARI LAGUNTZAILEA LORENA TUDELA
EKOIZPEN ZUZENDARIA ITXASO ESPINAL
MUSIKAGILEAK PAULA OLAZ Y PASCAL GAIGNE
JATORRIZKO ABESTIA IZARO
SOINU DISEINATZAILEA JEAN MINONDO
SOINU SORTZAILEA ALEJANDRO CASTILLO
JANTZITEGI DISEINATZAILEA IRATXE SANZ
MUNTZATZAILEA IBAI ELORTZA
ARTE DISEINATZAILEA IZASKUN URKIJO
ARGAZKI ZUZENDARIA GAIZKA BOURGEAUD
EKOIZLEAK MARGA GARIZURIETA, LARA IZAGIRRE, CRISTINA
ZUMÁRRAGA, PABLO BOSSI Y JOKIN ETCHVERRIA
EKOIZLE ERAGILEA GARAZI ELORZA
GIDOLARI ETA ZUZENDARIA LARA IZAGIRRE